

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 481/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onespena ematea Carlos Ibarlucea Martínez jauna Bide Azpiegituren zuzendari izendatzeari

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Horregatik guztiagatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Carlos Ibarlucea Martínez Bide Azpiegituren zuzendari izendatzea.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2019ko uztailaren 24tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua

JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ